

IKASLEEN TXOKOA 96. ZENBAKIA

Hernani BHI

BATXILERGOA

Migrazioa: errealitate ezkutatua

Egileak:

*Ezkerretik eskubira eta zutik: Lucia, Laia, Irati, Ainhoa, Xare, Eider, Naroa eta Hibai.
Makurtuta ezkerretik eskubira: Maren, Amaiur, Nora, Enara, Nahia, Uxue, Maialen eta Joana*



Amets Arzallus Antia

Amets Arzallus Antia bertsolari, kazetari eta azken aldi honetan idazle bihurtu zaiguna Hernanira bisita egin zigun *Miñan* liburuaz eta migrazioari buruz hitz egiteko, Hernani BHIko Batxilergoko lehen mailako ikasleekin izan zuen topaketa. Ondoren Ametsekin izandako elkarrizketaren berri emango dizuegu.

Elkarrizketagileak: -Zerk bultzatu zintuen Ibrahimaren historia argitaratzea?

Amets Arzallus: -Ez ginen hasi argitaratzeko ezer egiteko asmotan. Bere asilo eskaera zela eta, komisaldegian Ibrahimak bere historia kontatu behar zuen. Elkarrizketa edo galdeketa horri aurre egin zion, eta dossier txiki bat egiteko hasi ginen. Egun hartan bere ahozko kontakizunaren asmoa zen idatzizko txostenerako makulu bat izatea. Gero hortik argitaratzea egia esan zalantza askorekin ibili ginen. Eta momentu batean komisaria dossier hartatik haratago, zerbait agian erakusteko modukoa egitea merezi zuela. Bada, nik susmoa nuen bere asilo eskaera gaizki buka zitekeela, beste askorena bezala zoritxarrez. Berari entzunda deskubritu nituen migrante baten bideak, zailtasunak, trabak, imaginatzen ditugunak eta gure imaginazioz haratagoak... Zenbaterainokoak diren kontzientzia hartzeko, erakusteko eta batez ere, berari ahots bat emateko. Beraz, arrazoi horiek zirela medio, pentsatu genuen aurrera egitea.

E.: -Azkenean helburua zen asilo eskaera lortzea, baina gero ere jendea kontzientziatzea, ezta?

A.A.: -Bai, baita ere. Azkenean, helburu bat baino gehiago zeuden. Eta bai horiek baziren helburuetako batzuk, berarentzat igual errecurso batzuk sortzeko, zerbait egitea. Bai, hainbat helburu elkartu ziren.


E.: -Hitzaldian esan zenuen, Ibrahimarra Irungo Harrera Sarean ezagutu zenuela boluntario gisa. Azkenean, zuk nola bukatu zenuen hori, edo zerk bultzatu zintuen boluntario hastera?

A.A.: -Ni Saran bizi naiz, gurasoak Biriatur, eta arrebak Hendaian. Ni hendaiarra naiz. Orduan, ni sarri pasatzen naiz Hendaian, Hendaiatik Irunera, Irundik Biriatura. Hemen muga

ertzean oso deigarria zen 2018an migranteen ibilia, migranteen zailtasunak, poliziaren kontrolak eta horren ondorioak. Adibidez gogoratzen naiz, behin autopista bazterrean, gauean, euritan ikusi nituen oinez, kamioi bazterretan, dozena bat pertsona; gaua pasatzen Irungo aldean nora joan ez zekitelako. Eszena horiek eta argazki horiek, gure eguneroko bizitzan hasi ginen ikusten gero eta gehiago. Honezker, antolatzen hasita zegoen elkartasuna, eta egunkarrietan ikusten hasita nengoan Irungo Harrera Sarearen erreportajeak. Nire eguneroko ibilian boluntario batzuekin gurutzatzen nintzen, eta horrelaxe jo nuen haiengana, jakin gabe zertara, baina inpultso horrekin.

E.: -Zure ustetan mugako herrietako biztanleak egoeraren larritasunaz ohartzen al dira? Irun bezalako herrian etorkinak kalean ikustea nahiko gauza arrunta bilakatu da, kontziente garelako uste al duzu?

A.A.: -Bada, ez dakit zer esan. Nik esango nuke partetxo bat baietz, eta parte bat ezetz; azkenean, mobilizatuta, antolatuta eta ekinean ari da jendea. Egia esan, ez dakit zati handi bat kontziente den ala ez, nire ustez, norberak ere begiak ixten dituela batzuetan. Jakin bai, jendeak badaki zer dagoen, azkenean inguru honetan bizi garenok egunero ikusten dugu errealitatea. Eta nik uste dut ez dela egongo inor Irunen edo Hendaian, azken hiru urteotan eszena bihurri xamarririk ikusi ez duenik, esate baterako, migranteren bat, edo kontrolen bat, edota konplikazioen bat, edota batzuetan egoera larriren bat begi aurrean, bestela etxetik irten gabe egon beharko zuen. Orduan, kontziente izatea ez dakit zer den, baina behintzat ikusi, ikusi egiten dute denek. Gero askok begiak itxi edo ohitu eta aurrera segitzen dute larritasun handirik gabe. Zatitxo bat bada kontzientea eta mugatua, baina



Ibrahima Balde eta Amets Arzallus *Miñan* liburuarekin eskuetan.

zati handienak bere martxan segitzen du kezka pixka batekin, eta beste batzuk kezka handirik gabe.

E.: -Zu Irungo Harrera Sarean aritu zara denbora batez, eta ikusi dituzu Ibrahimarena bezalako beste kasu batzuk atentzioa eman dizutenak?

A.A.: -Bai, beno nik kasu asko eta asko ikusi ditut, gero haien historia jakitera eta lantzerako oso gutxiarekin iristen naiz; batetik, iristen den migranteak, oso denbora gutxi egiten duelako bertan, eta ahalik eta azkarren abiatu nahi duelako iparralderako bidea segitzeko. Bestetik, gelditzen denarentzat ere, bere ibilbidea eta historia kontatzea ez da batere erraza, kontatzeko ere indarra behar du, gogoratu egin behar du, eta era berean ez da samurra sufritzea eragin dizun hori gogoratzea. Gainera, beste bati kontatzeko konfidantza, indarra, zentzua eta empatia pixka bat izan behar duzu. Garai hartan, nik dossier eskaera gehiago egin nituen Ibrahimarenaz gain, eta zoritxarrez denak gogorrak dira. Denak berdintsuak eta aldi berean diferenteak dira, bideak ez direlako denak berdina izan, tokatu zaien zorte ona edo zorte txarra ere ez da denena berdina izan, baina pasarte zail eta gogorrak denetan daude.

E.: -Migrante horietatik asko zeuden Ibrahimaren kasuan bezala beraien nahien aurka edo nahi izan gabe iritsi zirenak Europara?

A.A.: -Ez naiz gai esateko, egia esan. Landu nituen beste dossierrak, gutxi gorabehera abiatuak zirelako, eta denak halabeharrek ekartzen ditu, bai Ibrahi-

ma, baita besteak ere. Gehienak, etxetik abiatzerakoan aukera hori buruan zutela abiatuak ziren. Gero, dosierra oso gutxiarekin egin genuen, baina hemendik (Irungo Harrera Saretik) milaka migrante pasa dira, eta ez dira hogeirek ere izan nik horrelako zehaztasunean ezagututako historiak. Horregatik, Ibrahimaren bezalako gehiago izango direla pentsatzen dut, baina ez dakit zehazki zenbat.

E.: -Batxilergoko lehenengo mailako ikasleengan hitzaldia ematera etorri zinenen, ikusi al zenuen gaiarekiko interesa guregan?

A.A.: -Bai, bai, dudarik gabe. Egia esan, hitzaldian eta galderetan kezka eta interesa sumatu nuen, zalantzarik gabe. Ikusi dut, aurretik eta ondoren ere lanketa bat egon dela, bakoitzak berez zeukan interesa gaiarekiko, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, baina ikusten da landutako zerbait dela, eta nik kezka sumatu dut. Horrez gain, harrera oso ona izan zela dut gogoan.

E.: -Hitzaldian aipatu zenuen zuretzat bazegoela liburuan zati gogor bat deskribatzerako orduan, zein da zati hori?

A.A.: -Oraintxe bertan ez naiz zehatz-meatz gogoratzen zein zati esan nizuen, ez baitaukat liburua nirekin. Halere, Ibrahimak beti esan izan du denak direla gogorrak zoritxarrez, baina gogorrenak eta zailenak Libian bizitako pasarteak direla, eta Libia izan dela infernu moduko bat.

E.: -Guk Aita Mari dokumentala ikusi genuen, eta bertan Libiako hainbat irudi agertzen ziren, eta salbatutako pertso-

na askok elkarrizketatzerako orduan esaten zuten Libia kartzela moduko bat zela.

A.A.: -Bai, bai, hori etorkin gehiagori ere entzun diet, eta hala esaten dute denek.

E.: - *Miñan* liburuarekin jarraituz, euskaraz idatzitako liburua da hau, baina nahiko arraroa gertatu zaigu, idazleetako batek irakur ezin dezakeen hizkuntza batean argitaratua izatea. Zergatik euskaraz?

A.A.: -Bai, nahiko bitxia da. Orain jada badakit Ibrahimak idazketa eta irakurketa gehixeago menperatzen dituela, eta bera gainera jarduten dela bere burua saiatzeko eta lantzeko. Eta orain jada irakur dezake nahiz eta politikixeago izan. Gainera, nahiz eta euskara ez duen menperatzen, gaztelania menperatzen du gaztelaniazko liburuen bertsioa irakurtzeko adina, eta badakit jada bera pixkanaka irakurtzen ari dela.

E.: -Halere, berarentzako oso gogorra izango da liburua irakurtzea, bizitako traumak eta egoera zailak berriro ere burura etorriko zaizkiolako, ezta?

A.A.: -Bai, bai, noizbait hitz egin izan dugu horretaz, baina ez diot inoiz zehazki galdetzen. Pixka bat irakurtzen du, uzten du, gero berriz segi, baina ez da erraza izango noski.

Beno Amets, mila esker tartetxo hau eskaintzeagatik, plazer bat izan da zure hitzaldia entzutea, eta zurekin elkarrizketa hau egitea.

Egileak: Xare Hernandez Miner eta Ainhoa Lopez Garcia

AMHER

2004an Hernanin
sortutako
kulturartekotasun
elkartea da.



Egilea: Uxue Zugasti Rodríguez

Honen helburua biztanle guztiok eskubide berberak izatea da, bai bertan jaiotakoak, bai edonon jaiotakoak; hortaz, kultura arteko ulermena helburu duten ekimenak bultzatu eta babesten ditu. Joxe Elizondok azaldu zuen moduan, bost xede dituzte: premia handiena duten pertsonen arreta ematea, eskubideen berdintasuna, aniztasunaren defentsa, gizarte-kohesioa, babesa eta elkartasuna, harrera-herrialdearen balio positiboetan haztea, eta, azkenik, diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurkako borroka.

Jarraian, haien ekintza eta helburu batzuk azalduko ditugu, baina informazio gehiago nahi izanez gero, haien sare sozialetara jo daiteke, izan ere, Instagram, Twitter eta Facebook kontuak dauzkate.

Programa eta ekintzak

Elkarte honek hainbat programa edo ekintza egin ditu urteetan

zehar berdintasuna eta elkarbizitza sustatzeko. Ekintza guztiak laburbilduz, hiru ataletan bereizi egingo lirake. Lehenengoa, etorkinei aholkularitza eta beste zerbitzuak ematea, besteak beste, gaiak lantzea (pobrezia, pape-rak, hezkuntza, etab.). Bigarrena, Hernanin sentsibilizazio kanpaina desberdinak antolatzea da, hitzaldien bitartez, ekintza gastronomiko kulturalak eginez, etab. Azkenik, beste herrietako kulturak Hernanira gerturatzea dago, eta honetarako hainbat ekintza kultural antolatzen dituzte, adibidez, aste multikulturala edo kontzertu multikulturalak. Programei dagokienez, "Berdinola" dago, ikastetxeetan parekide-

tasuna eta kulturartekotasuna lantzeko helburuarekin sortua. Honen osagaiak ipuin kontaketa saioak, eta gelan ikasturte osoan zehar lantzeko material didaktikoa dira, bi multzotan banatzen direnak, parekidetasuna eta kulturartekotasuna.

Harrera eta Jatorri Aniztasuna

Elkarbizitza batean bizitzeko beharrezkoa da jatorri eta kultura ezberdinen arteko elkar ezagutza izatea. Honetarako, informazioa eskuragarri izatea ezinbestekoa da, beste kulturak ondo ezagutzeko eta ez estereotipo mingarrietan oinarritzeko. "Jatorri Aniztasuna Zenbakitan" orrialdean informazio hau eskaintzen dute, bi helburuarekin: Informazio zehatza emango duen tresna digital erabilgarri eta ulerterraza jartzea, eta datuen bidez elkar ezagutza sustatzea. Herritar horiek informazioa eskura izateaz gain, herritar berriei informazioa zabaltzeko dago. 2006. urtean Ongi Etorri Gida sortu zen etorkinei herrian dauden zerbitzuak azaltzeko; gainera, sei hizkuntzatan argitaratu zen. Baliagarria izan arren, zaharkituta geratzen ari da eta gida berri bat egiteko asmotan daude, honako helburu hauekin: kultura desberdinen arteko harremanak indartzea, herriko

edo herri inguruko baliabideei buruzko informazioa zabaltzea, bizilagun berriak gerturatzea, eta harrera prozesua erraztea.

ZurrumurrurikEZ!

Sare hau, Sos Arrazakeriak eta Zarautz, Tolosaldea, Ordizia, Eibar, Hernani, Astigarraga eta Errenterriako udalek sortu dute, zurrumurruek gelditu eta aniztasuna balioestea dutelarik helburu. Seguruena, aurreiritzi asko entzun dituzue inguruan: pertsona etorkinak segurtasun eza handitzen dute, osasun zerbitzuez abusatzen dute, lanak kenduko dizkigute..., baina hauek zurrumurruek besterik ez dira, iruzkin hori, txiste hori, whatsapp bidez jasotako bideo hori, trenean entzun dugun elkarrizketa hori edo kontrastatu gabeko albiste hori diren bezala.

Zurrumurruek kolektibo oso bati irudi negatiboa ematen dio, eta ondorioz, imajinaziozko harrisiak eraikitzen dira gizartean. Sare honekin, gure gizartean aurreiritzi eta estereotipo negatiboak daudela jakinarazi nahi diote jendeari, gizarte-haustura hauen inguruan kontzientziazteko. Honetarako lau atal lantzen dituzte: estrategia emozional eta komunikatiboen erabilera (ulertarazteko ideia horiek okerrak direla); komunikazioa-

ren erabilera (gatazka edo elkarbizitza sustatzeko); antzerki formako ekintzak (kultur aniztasuna bultzatzeko); eta azkenik, bertsoak jartzea zurrumurruei.

PASA

Aurten Arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako martxaren XXV. edizioaren leloarekin bat egin dute "PASA (Irun-Hendaia-ko mugan kontrol selektiboa)".

Bertan, Irun eta Hendaia arteko mugan bizitzen den egoera dramatiko bataratu nahi dute; izan ere, mugak ixteko politikak bidaiatzen jarraitzea zailtzen du, eta honek pertsona batzuen bizitza arriskuan jartzen du (mugan bertan 7 hildako). Bestalde, Giza Eskubideen eguneroko urraketa, hautapen-kontrolak eta igarotzeko arbitrariotasuna salatu nahi dute, oinarritzeko eskubide guztiak bermatzen dituzten neurri politiko eta sozialen faltaz gain.

Pasaatik Donostiako Boulevardera martxa martxoaren 20an, igandean, izango da; eta aurkezpenarako prentsurrekoa martxoaren 16an, asteazkenean, goizeko 11:00etan egingo dute.

Egileak: Maialen Azurmendi Mujika, Enara Azurmendi Sarasola, Nahia Nabarro Oiarzabal eta Uxue Zugasti Rodríguez.

Bat-bateko errealitate gordina

Noranzko egokian hartu dut trena? Seguru geltoki honetan jaitsi behar dudala? Akaso engainatu egin naute?

Guretzat eskurtsio simple bat izan zen, migranteentzat eguneroko errealitatea da. Trena hartu genuen taldean, jakinda zer egingo genuen, baina migrante batek ezjakintasunean hartzen du garraio hau, noraezean.

Hasteko, Jokinek, Andreak eta Oihanak (Irungo Harrera Sarrerako boluntarioak) gure esku utzi zuten Gurutze Gorria iristeko erronka, migranteek bizi behar dutenarekin enpatizatzeke. Hara iristeko, hainbat baliabide desberdin erabili genituen, adibidez, lurtean zeuden berde koloreko oin azarnak jarraitu genituen. Halaber, tren geltokitik atera, eta eskubiko hormaren orientazio kartelaz baliatu ginen, bertan, hainbat hizkuntzatan udaletxea eta Gurutze Gorria markatuak zeuden. Aipatzekoa da google maps erabiltzerako orduan agertzen den lehen helbidea okerra zela, eta lurreko azarnak ez zirela erraz ikusten. Gurutze Gorriko aterpera iristeko, mugikorren laguntzaz baliatu ginen gehien-

bat, aitzitik, migrante batzuek ez dute mugikor bat eskura, edo hizkuntza dute muga..

Aterpetxerako bidean, bide okerra hartu zuten hainbat migrante gurutzatu genuen. Aipatu ziguten ostirala izanda, eta asteburua bertan egonda, beste egunetan baino mugimendu gehiago ikusiko genuela. Taldekako ariketa bat proposatu ziguten: orri batean aterpetxean sartzeko eskubidea zuten migrante batzuk agertzen ziren beren datu batzuekin, eta beste orrian aterpetxerako sarrera ukatu zitzaizkien migranteen izenak zeuden haien datuekin (adina, European zeramaten denbora, haien helmuga...). **Baldintza horiek ez betetzeagatik** aterpetxera sarbidea ukatzea izan zen gehien harritu gintuena, nahiz eta barruan oheak soberan egon. Eta honekin batera, bertako zaintzaileek eduki behar duten jarrera hotza arazo honen aurrean. Udalak beste hainbat eraikin izanda, aipatu ziguten

ez dela kasualitatea aterpetxea hain toki aparten kokatua ego-tea, industrigune batean, herri-tik urrun.

Jarraian, Irungo udaletxea dagoen San Juan plazara jo genuen. Bertan, migranteei egiten zaien harrera bilera bertan izaten zela aipatu ziguten. Bileran migranteei momentuan dituzten eskubideak eta aukerak aurkezten zaizkie, bakoitzak bere erabakia har dezan. Batzuek espainiar estatuan asiloa eskatzea nahiago dute; beste batzuek, ordea, argi dute frantziar muga zeharkatu nahi dutela beraien bidaiaren aurrera jarraitzeko. Pertsona zuria izanda, zubi bat gurutzatzea besterik ez da; pertsona beltzek, aldiz, beste metodo batzuk erabili behar dituzte polizia frantsesaren jarrera zorrotzari eta **arrazistari** aurre egiteko. Horietako bat, pertsona bati laguntza eskatzea, eta honekin autoz gurutzatzea izaten da, kasu honetan ehunka euro ordaindu behar dute, eta modu ilegal batean egiten da. Beste bat, ibaia gurutzatzea da, hemen arrisku handia dago, askok ez dakitelako igeri egiten. 2021. urtean, 7 pertsona hil ziren



Hernani BHIko ikasleak Irun eta Hendaia arteko mugan.

saiakeran.

Gu Irungo Harrera Sareko boluntarioen laguntzaz mugara hurbildu ginen, egoera ikusteko, eta harrigarria iruditu zitzaigun bertako poliziaren jarrera. Hasiatik, gure presentziaz ohartu egin ziren, eta gu ginen tokira hurbildu ziren pare bat patruila. Gainera, nahiz eta hainbat zubi egon, bakar batetik zeharkatzeko aukera dago, besteetan bidea guztiz moztuta dagoelako. Aitzakitzat eraso terroristak jartzen zizkiguten lehen, gero pandemiaren arazoa, ondoren..., azken finean berezko jarrera arrazista estaltzeko.

Bukatzeke, Irungo Harrera Sareak duen arropa biltegia bisitatu genuen, eta bertako langileek beraien lan egiteko modua aurkeztu ziguten, arropa, genero eta adinaren arabera anto-

latuta zegoen. Hara iristen den migrante orok bere izaerarekin bat datorrena aurki dezan, eta Gurutze Gorrian jasotzen den arropa uniformatua alde batera utzi ahal izateko.

Arazo honen aurrean gure laguntza eskaini nahian Irungo Harrera Sarearekin kontaktuan jarri ginen, momentu honetan motxilen beharrean daudela jakinarazi ziguten eta eskolako klase guztietatik pasa ginen mezua zabaltzera. Bi aste tartean 40 motxila biltzea lortu dugu, eta Irungo Harrera Sarearekin harremanetan jarraitzen digu behar dutenerako laguntzeko prest. Hau elkarlan baterako hasiera besterik ez da izan.

Egileak: Joana Garcia Zubeldia, Eider Matellanes Estevez eta Naroa Ollo Iglesias

AITA MARI dokumentala

Hernaniko Batxilergoko lehen mailako ikasleok migrazioaren gaineko hainbat ekintza landu ditugu.

Horiekin bat hainbat atal ikasi ahal izan ditugu, adibidez, gizar-teak gure errealitatea nola hondatzen digun haien gezurrekin, migranteen bizitza gordina ezkutatzuz. Jarduera hauek hainbat modutan landu ditugu: AMHER elkartearen hitzaldiekin, Miñan liburua irakurritz, Amets Arzallus idazlearekin topaketa eginez, Irungo Harrera Sarekoekin elkar-lanean mugara gerturatuz...

Lehen aipatutako jarduerekin batera "Aita Mari" dokumentala ikusi genuen eta hau hiru zatitan banatzen da: itsasontziaren aurkezpena, Estatuak ezarritako blokeoa eta erreskatea. Salbamento Maritimo Humanitario-ko bi kideek ezohiko ideia bat izan zuten, arrantza-ontzi bat erreskate ontzi bihurtzea, Mediterraneo itsasoan itozten diren errefuxiatuak salbatzeko. Horrela sortu zen Aita Mari proiektua. Langileen eta boluntarioen laguntza ezinbestekoa



Aita Mari dokumentalaren irudi bat.

dela ikus daiteke, haien lanak bizitzak salba ditzakeela. Horretaz gain, Espainiako Gobernuak itsasoratze baimenak behin eta berriz ukatu zizkietela ikus daiteke. Beranduago, egoera konpondu eta gero, alde egitea lortzen dute Mediterraneoan murgilduz. Irudiek erreskate bat erakusten dute, eta baita Libiako patruila-ontzi batekin izandako topaketa tentsio bat ere.

Dokumentalak Aita Mari misioak aurreikusteko erabakian ezkutatzaren diren oztopo burokratikoaren arrazoiak eta europar interesak bistaratzen ditu. Horretaz gain, ez dela urrutira joateko beharrik errealitatea ikusteko. Estatuak, komunikabideetan ikus daitekeen bezala, batzuen bizitzari garrantzi gehiago ematen die beste batzuen bano. Gi-

za-eskubidea jendeari laguntzea dela diote, hala ere baimenak eta baldintzak daude pertsonak erreskatatu ahal izateko. Arrantzaleei eskubide gehiago ematen zaie arrainak arrantzatze, erreskatatzaileei pertsonak salbatzeko bano. Oso zaila da egoera samin hau normalizatzea eta beste albo batera begiratzea, klasismoaren eragina harrigarria baita. Jendea kontzientziatu egin behar da, sentsibilizazio kanpainak sortu, eta laguntzeko prest izan. Edozein pertsonak du bizitzeko eta errespetatua izateko eskubidea, INOR EZ DA ILEGALA. Horregatik, Hernani BHIko ikasleok Irungo Harrera Sarrerako eragile aktibo bihurtu gara.

Egilea: Irati Exposito Ibarbia

Miñan

«Nik ez nuke hitz egin nahi horrelako gauzez, kontatzen dudanean ikusi egiten dudalako, nire begien aurren, esplikatzeko ari naizen guztia. Zu orain hemen zaude, entzuten, baina ni han nago, nire haragiaren barruan, eta kontatzen dudanean berriz bizi dut esplikatzeko ari naizen guztia. Horregatik, ez nizuke hitz egin nahi holako gauzez. Baina zuk galdetu didazu, eta esan dizut. Eta esan dizudanean berriz sentitu dut dena.»

Ibrahima Balderen hitzak dira hauek, Ginea Konakrytik Europara etorri zen migrantea, nahiz eta ez zen berak desiratzen zuten zerbait.

Miñan liburua Amets Arzallusek eta Ibrahima Baldek idatzi zuten 2019an, eta Ibrahima Balderen historia kontatzen da bertan. Ametsek Ibrahima Irungo tren geltokian ezagutu zuten, eta Ibrahima laguntzearen helburuarekin, haren historia ezagutzen hasi zen. Denbora pasa ahala, historia bera eta kontatzeko zuten modua bereziak zirela konturatu zen, eta bere ibilbidea liburu batean bihurtzea erabaki zuten. Liburua idaztearen helburua, Ibrahimaren ibilbidea jendeari aurkeztea eta egoera ikus-

tarazteko modu bat izatearekin batera, asiloa lortzeko erraztasun gehiago izatea izan zen, izan ere, asiloa lortzea oso zaila da pertsona migrante batentzat. Zoritxarrez, ez zuen asiloa lortu, baina egoera bai ikusarazi zuten.

7 urterekin bere aitarekin joan behar izan zuten Konakryra, zapatak salduz dirua lortzeko. 13 urte zituela familiaburu geratu zen, eta berak eraman behar izan zuten, nola hala, etxera dirua. Hau lortzeko hainbat lanbide izan zituen, nahiz eta urte pare bat etxera bueltatu behar izan zuten amaren osasunak okerrera egin zuelako. 16 urte zituelarik, hirira bueltatu zen eta anaiak Libiara ihes egin zuela esan ziotenean, haren bila hasi zuten ibilbidea. Bidean hainbat lagun egiten ditu, eta nahiz eta hemen beste lagun batzuk egin, liburua hau beraiei eskeintzen die, inoiz ez delako haietaz ahaztuko. Bidean odisea bat bizi izan zuten, eta bere helburua izan ez arren, Europan amaitu zuten.

Hona hemen liburuaren amaieran Ibrahimak berak idatzitako poemaren zati bat:

«Eta zu, hainbeste aldiz aipatua, nor zaren pentsatzen ariko zara. Zu agian polizia zara, komisaria bateko mahai batean nire asiloaz erabakitzen ari dena.



Egilea: Uxue Zugasti Rodríguez

Zuk ikusiko duzu nirekin zer egin.

(...)

Edo zu zara beharbada orain basamortua zeharkatzen ari zarena, edo basoan zaudena programa baten zain, zuretzat ere bada informazio hau guztia.

Edo zu zara honaino iristen lagundu didana, Oranen edo Irunen, zenbat zu.

Edo sinpleki

zu zara zu

orain poema hau irakurtzen ari dena.

(...)

Egileak: Maialen Azurmendi Mujika, Enara Azurmendi Sarasola, Nahia Nabarro Oiarzabal eta Uxue Zugasti Rodríguez.

Iritzien txokoa

«Erotu al zarete?»

Martxoaren 8a izan zen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna.

Urtero bezala, Hernani BHI institutuko talde eragileek haien aldarrikapenak egin dituzte; hauen artean guk, Matxialto taldeak. Aurten, gure ohiko ekintzei uko egin eta eskubide ezberdin batez baliatu gara ezustea eragiteko asmoz "performance" bisual bat eginez. Honetarako, taldeko kideak zein gure aldarrira batu nahi izan duten gainontzeko ikasleak, aurpegiak estalita eta kolore beltzaren itzalean ezkutatu, erotu egin gara, oihu egin dugu. Sistema zapaltzaile patriarkal honek, beste gauza askoren artean, ezartzen digun presioa eta betebeharrak ugari salatu ditugu, emakume eroen izaera antisistema, aske izateko gogoia eta barnean dugun indar guztia askatzeko beharra aldarrikatuz.

Hau guztia gutxi balitz, beste talde eragile batzuek antola-

tutako ekintzak ere gauzatu ziren; Harrotzenek eta Ikamak, paro deialdia egin zuten, eskolan dinamika labur batzuk burutu zituzten eta, jarraian, ikasleak Atsegindegin antolatutako tribial feministara bideratu ziren. 14:00etako bazkari autogestionatuaren ondoren, 17:00etan Amherrek, Hernaniko kultura aniztasunaren aldeko erakundeak dantza saioa gauzatu zuten. Arratsaldean, 18:30ean hiru bloketan banatutako manifestazioa hasi zen, eta egunari amaiera eman zitzaion Tilosetan hiru blokeen elkartzearekin.

Eskolan, kalean zein etxean borrokan jarraituko dugu, erotuko gara. Gora borroka feministak!

Egilea: Matxialto taldea



Lehen sorospenak

Lehen sorospen ikastaroak larrialdi egoera baten aurrean nola jokatu behar dugun irakasten digu eta baita unean uneko erabaki onenak hartzen ere.

Nire ustez, edozein adinetako pertsonak jakin beharko luketen oinarriko ezagutza da honakoa. Zoritxarrez, nork ez du bizi ezagun batek kordea galtzea? Edota nork ez du haurtzaroan zauriren bat egin?

Hori dela eta, ikasleok uste dugu hezkuntzak lehen sorospeneko klaseak edo saioak txikiak garenetik eskaini behar dizkigula, betiere haurren adinari egokitu, noski. Izan ere, haur txikiak garenan abesti edo joku erraz batzuen bidez zenbait kontzeptu ikastea eta barneratzen hastea posible da. Hala nola, BAE112S protokoloa ikasten hasteko erabil daitezkeen jokuak. Ondoren, denborak aurrera egin ahala, abesti edo joku horiek beste modu bateko ariketa batzuekin ordezka daitezke edota haien konplexutasun maila handitzen joan, esaterako, larrialdi egoeren adibideak jarri eta ikasleok haien aurrean egin beharrekoak hausnartzeko.

Hori horrela, heldutasun maila handiagoa dugunean, oinarriko ezagutza batzuk izango ditugu eta larrialdi baten au-

rrean nola jokatu erabakitzeke prest egongo gara. Ondorioz, baliteke egoera larri batean bizitzaren bat salbatu eta sufrimendua sailhesteko aukera izatea.

Amaitzeko, aurretik aipatutakoari erreferentzia eginez, nire ustez bizitza bat salbatzeko ez da beharrezkoa formazioz erizaina edota medikua izatea. Esan bezala, aipatutako prestaketa egingo balitz, istripuetan ambulanzia eta espezializatuak iritsi bitartean zerbait egin ahal izango genuke. Adibidez, gazteen festetan egoten diren koma etilikoetan biktimaren ingurukoek laguna laguntzeko eta sorosteko beharrezko formazioa izango lukete, edo gutxienez, haren egoerak okerrera ez egiteko zer egin jakingo lukete.

Laburbilduz, nire ustez, hezkuntzak txikitatik irakatsi beharko liguke lehen sorospenak egiten. Bide honi hasiera emateko, gutxienez, ikasketa mota hauei daukaten garrantzia aitortu behar zaie eta hala, ezagutza hau bultzatzen ahalegindu behar genuke.

Egilea: Hibi Moreno Arias